



BARREN
TOKIKOM

Badatoz



ARKITEKTURA

Plaza txikia, 34 - Elgoibar



Obra eta eraikuntza proiektuak - Ziurtagiri energetikoak
Jarduera lizentziak - ITE/EIT (Eraikinen ikuskaritza teknikoak)

679 323 999 / 615 737 954 - www.olansl.com



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Oraingoan ere, portatu zarete!

Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Zuei esker, abenduaren 24a berezia izan zen, eta zuei esker Elgoibar euskalduntzen jarraituko dugu. Eskerrik asko tonbolarako opariak eman zenituzten guztioi eta baita ere tonbolako boletoak erosi zenituztenoi. Zuek gabe ez litzateke posible izango. Mila esker Elgoibarko Udalarari gure eskaerak aintzat hartzeagatik; mila esker Nerea Alustiza PSE-EEko zinegotziari bere lokala erabiltzen lagatzeagatik, eta mila esker Ane Beitia alkateari emandako erraztasunengatik. Eskerrik asko, baita ere Elgoibarko Izarraren txosnara gerturatu eta taloak edo bestelakoak dastatu zenituztenoi, eta eskerrik asko zuen borondatez hori guztia antolatzen lagundu zeniguten bazkideoi. Mila esker guztioi Elgoibar euskaldunago egiten jarraitzeko emandako bultzadagatik. Herri honek nahi badu, datoren abenduaren 24an ere hor izango gaituzue.

2. Estankoa / 40-15 Tenis Elkarte / AEK euskaltegia / Agirre sastreria / Agurtzane ileapaindegia / Ainhoa fisioterapia / Alcorta Forging Group / Aldaz hortz klinika / Bacalaos Alkorta / Altzola Berazeta baserria / Amagoia gozokiak / Amaia, Marian eta Sara fruta dendak / Amaro eraikuntzak / Ametsa kafetegia / Anari / Anua errektifikatuak / Apraiz parafarmazia / Aranburu bitxi denda / Arauri / Arilan mekanizatu zentrua / Arkupe / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Azkue argazkiak / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika Banaketa / Beristain Mekanizatuak / Bitxibitxi / Bitxibizibitxi / BM Complet / Bolintxo / Casa Astigarraga kirolak / CD Elgoibar / Cristina García estetika eta Terapia Naturalak / Danele Sarrigarte / Dantzan.eus / Darama bitxiak / Doña Mercedes / Ecenarro lentzeria / Ecolandry / Egondo / Egur arte tailerra / EITB / Eizagirre / Elena ileapaindegia / El Gautxo / Elgoibarko Udala (Berdintasun Saila, Euskara Saila, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Saila eta Kultura Saila) / Emilia Nogales / Ene Bada / Eroski Maala / Esther Ibarguren / Etxe-Tar / Etxekit / Etxepe / Evoka Shoes/ Exclusivas Pelegrín / Fadek ileapaindegia / Farmalau / Fotero / G&M / Gabi jatetxea / Gaindu / Garate jantzi denda / Gloria okindegia / Go Bike / Gorostiza liburu denda / Grupo Unceta / Gure Esku Dago Elgoibar / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hurbil informatika-Mr.Micro / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea / Idama / Ikus optika / Imanol Agirretxe / Ipintza margoak / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Irudi argazkiak / Isleder / Iturri / Jai Alai / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Jabier Muguruza / Jesus Mari Makazaga / Jose Antonio ileapaindegia / Juliarregi / Justo Arriola / Kala loradenda / Karkizano / Kilimon Trail / King-Kong / Klitz / Kontxi / Laboral Kutxa / Lagun Taldea Txirindulari Elkarte / Lagunak koltxoi denda / Lanbroa / Lurdes ileapaindegia / Maala kafetegia / Magi Bitxiak / Mahats arandegia / Maite Maiora / Maite Rementeria / Mapfre / Mancisidor / Mekanosa / Meraki ileapaindegia / Merino konponketak / MG burdindegia / Mikel Aingeru Goenaga / Milar Bire / Mintxeta Atletismo Taldea / Miren Guillo / Moma / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Nalai oinetakoak / Napoka Iria / Nieves Maidagan / Noa estetika / Noa ileapaindegia / Nuvan / Oin Berri podologia zentroa / Ongi iturgintza / Patxi harategia / Pikumek / Pirritx, Porrotx eta Marimotots / Pitxintxu / Rural Kutxa / Sahatzu / Salento / San Roke kafetegia / Sinuöse / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Sugar / Suministros Evia / Swisslan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tantaka taberna / TAZEBAEZ s.coop. / Txarriduna jatetxea / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Udal Musika Banda / Usua / Uxue Alberdi / Uzuri / Vanesa Mateos / Viento Sur gastroteka / Xarlem Creations / Yudego / Zalao Arnaiz / Ziarda / Zu+Ni / ...



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Balizko bizargina

zuzenean hariari helduz eta hotz-hotz zean. Bere hitzei momentuma eman nahian bezala.

– Hala balitz – jarraitu zuen, deliberraturatuko isilune baten ostean, hamaika alditan errepikatutako erretolika hitzez hitz ebakitzen duenaren freskotasunarekin – hau da, bizargin horrek bere buruari bizarra kenduko balio, eta esan dugunez, beren buruari bizarririk kentzen ez dietenei soilik kentzen dienez bizarra bizargin honek, ezingo lioke bere buruari bizarririk kendu. Baina hau, bistan denez, ezinezkoa da. Ezinezkoa baita kentzea eta ez kentzea. Beraz, badirudi, beste aukera, hau da, bizarginak bere buruari bizarririk ez kentzea, litzatekeela aukera bakarra.

Kontrakoa ezinezkoa aitortu dugunez. Hala balitz, bizargin honek ez lioke bere buruari bizarririk kenduko. Eta, hala ere, bere buruari bizarririk kentzen ez dion herri horretako biztanleen multzoan egonik, bizargin honek bizarra kendu beharko lioke bere buruari. Hau da, kentzen ez badio kendu egingo lioke. Baina hau ere, ez kentzea eta kentzea, ezinezkoa da! Horra Bizarginaren paradoxa! Ezin galdera erantzun. Luze jotako isilune berriaren ostean iritsi zitzaion, halakoren batean, merzitako epaia.

– Jesus, Maria eta Joxe! Berriz ere zu? Nahikua degu! Zer egin dizugu guk?

Sumatzen zuen zen zer zetorkion. Eta bai etorri ere porrotaren mikatza!

Hala mintzatu zen, beste behin, basamortuko bideetan galdutako zutabegile dohakabea, solemnitate handiz. Duintasunari eta emandako hitzari eutsi nahi, bai, baina ezinaz jabetzen zelaririk.

– Ba omen zen herri bat, eta herri hartan bizargin bat, norbere buruari bizarririk kentzen ez zion herri horretako biztanle bakoitzari, eta soilik haiei, bizarra kentzen ziena. Kentzen al zion bizarririk bizargin hark bere buruari? – Bota zuen,

“Ez kentzea eta kentzea ezinezkoa da”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edure Izogirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

39 URTEZ ZUEKIN

San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel: 943740359



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Uzuri
optika audio

Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero 10€ko deskontua
eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.

Baliogarria 2017ko urtarrilaren 14ra arte

Zure semea edo alaba 2016an
jaiotakoa bada eta berak daukan
onena garatuko duen hezkuntza
eskaini nahi badiozu, hurbildu
eskola ezagutzera.

Deitu 943740879 zenbakira edo
idatzi zuzendaritza@elgoibarhe.net
helbidera eta zuretzat bisita
antolatuko dugu.
Ez zara damutuko!



elgoibarko
herri eskola



BARREN

BARREN Elgoibartik kanpo
jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **29€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek **23€**)
Ipar Euskal Herria eta Europa: **42€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **32€**)
Europatik kanpo: **54€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **43€**)

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus



BARRENEko argazki kamerak ez du atsedenik hartu Eguberrietan, eta han eta hemen ibili da Eguberrietako ekintzak iruditan biltzen. Olentzero eta Mari Domingiren kalejirak Elgoibarren eta Mendaron, Elgoibarko Izarraren Tonbola, Gabon Zahar azoka, Mendaroko San Silbestre lasterketa... Guztia ondo baino hobeto joan da, eta orriotan bildu ditugu oroimean gordetzeko irudi horiek. Gaur arratsaldean, bestalde, Ekialdeko Errege Magoak iritsiko dira Elgoibarren eta Mendaron opariak banatzera. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.barren.eus



Eguberriei errepasoa Elgoibar





Eguberriei errepasoa Elgoibar

Arg.: Gurutze Arizna

Arg.: Gurutze Ariznabarreta



rreta



Kirol Federatuaren Urteko Sarietako saridunak, Inazio Bereziartuako auditoriumean egin zuten ekitaldiaren amaieran.



Mikel Izeta (Sanlo, eskubaloia)



Richard Aranzabal (Saskibaloia taldea)



Javier Vargas, Angel Tobajas eta Evaristo Rodriguez (Morkaiko, mendizaletasuna)



Bego Larrauri (Urbizi, urpekaritza)



Adrian Ortiz de Villalba (Urnobitza, motoak)



Leire Egaña



Hugo Sierra (Zarta, arku tiraketa)



Iker Calvo (Igeriketa taldea)



Luis Lopez (40-15, tenisa)

Saskibaloari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuten Asier Muruak, Jon Gonzalezek, Xabi Orozek eta Ainhoa Herrerok.



Jose Mari Urkiri (C.D. Elgoibar, futbola)



Guillermo Saez (Lagun Taldea, txirrindularitza)



Daniel Rino (Mintxeta, atletismoa)



(La Union, ehiza)



Marini Arrese, C.D. Elgoibarko mendeurren batzordearen ordezkarria. Udal Kirol Patronatuaren sari berezia



Gorka Rios (Olaizaga, karatea)



Jesus Mari Agirrebeña (Lagunak, pilota)



Juanjo Gomez (*Mikel Leonek jaso zuen saria bere ordezt). Zubi-ondo, xakea.



Herminio De Carlo (Sigmako probalekua, herri kirolak)

► ZUHAITZ GURRUTXAGA

'HERRI TXIKI, INFERNU HANDI'
SAIOKO AURKEZLEA

Azaroan Mendaron izan ziren ETB1eko 'Herri txiki, infernu handi' saioko aurkezleak eta programazioan azken orduko aldaketarik izan ezean behintzat, domekan, hilaren 7an, emitituko dute. Laugarren denboraldia du saioak eta orain artekoaz eta Mendarori buruzkoan ikusiko dugunaz hitz egin digu Zuhaitz Gurrutxaga (Elgoibar 1980) aurkezleak.

- AINARA ARGOITIA -

◆ **Elkarrizketa lotu aurretik aitortu zenigun sorpresa hartu zenuela Mendaron. Zerk harritu zintuen horrenbeste?**

Hasteko esan behar dut, poz handia eman zidala Mendaron saioa egingo genuela jakin nuenean. Insititutu garaian Mendaroko lagun asko egin nituen eta osaba Fernandok Kilimoian jokatzen zue-nean ere sarri joan ohi nintzen bera ikustera Ospas-Gainera. Guzti horregatik ilusio berezia egin zidan Mendaron grabatzeak. Horrez gain baina, elgoibartarra izanda eta Mendaro gertuko herria izanik, uste nuen herria ongi ezagutzen nuela eta horregatik pentsatzen nuen zaila izango zela harrituko ninduten gauza asko aurkitzea, gauza berriak topatzeko urrutira joan behar dugun uste horregatik, baina zer diren kontuak! Azkenean denboraldiko saiorik onenetakoa grabatu genuen, onena ez bada. Mendarorrek dena eman zuten, eta dena umorerako. Izugarri lagundu ziguten, eta emaitza halakoxea izan da. Jende alai topatu genuen, sekulako bizipoza eta energia duen adineko jende asko ezagutu genituen eta gauza berri asko ikusi/ikasi genituen. Saioaren zuzeneko grabatu genuen frontoia nola bete zen ikustea ere izugarria izan zen. Egin zuen egun hotzarekin goraino bete zen frontoia eta hunkigarria izan zen. Oso eskertuak gaude Mendaroko herriari.



“Denboraldiko saiorik onenetakoa grabatu genuen Mendaron, onena ez bada”

◆ **Onenetan onenekin egoteko aukera izan zenuen gainera, besteak beste Teresa Arriola Teresinekin, bizipozaren pertsonifikazioa denarekin. Maitemindu zintuela onartu zenidan, eta beste horrenbeste aitortu digu berak.**

Izugarria da. Donostian seigarren ki-mioterapia saioa hartzetik zetorren grabaziora eta ikustea zelako bizipoza erakutsi zigun eta zelako naturaltasunez kontatu zigun zeukana eta ikustea bere egoeran barre egin eta barre eginarazteko duen gaitasuna, ni neu hunkitu ere egin nintzen. Eta halako batzuk topatu ditugu gure saio honetan. Nik uste dut adineko jendeak ezkutatzeko gutxi duela eta horregatik agertzen zaizkigula horren natural. Kamarak itzalitakoan Teresinek berak ere aitortu zigun: “84 urterekin lotsatu egin behar al naiz esan diudanekin?”. Benetan direna erakusten dute, eta hori handia da. Gazteago garenok kontzienteago gara halako saio batek daukan oihartzunaz eta lotsak hartzen gaitu. Erridikulua egiteari beldur handia diogu, larregikoa, eta askotan ez gara gu kamera aurrean.

◆ **Saio honen ekarpen handiena hori izan daiteke, beharbada: ikustea besteek esango dutenari erreparatu gabe**

diren bezala agertzen direnak beste modutan bizi direla. Ikasgai handia.

Oso ados nago diozunarekin, eta benetan pozten nau diozun hori hala sentitu baduzu. Natural agertzea ezin da zertan lotsarako motibo izan, baina kezkatuegi gaude besteek gutaz pentsatuko duten horrekin eta gauza asko galtzen ditugu bizitzan hori dela eta. Iruditzen zait autoerridikulazioa askatasunerako bidea dela. Norbere buruari barre egiteko gai denak, ez dauka besteek barre egingo ote diotenaren beldurrik. Alde horretatik, adineko jendea askoz lasaiago bizi denaren irudipena daukat. Ez dute ez indarrik, ez denborarik galtzen zinez ez direna erakutsi nahian. Horregatik egoten naiz ni horren gustura adinekoekin eta horregatik saiatzen gara herri txikietan adinekoekin batzen, iruditzen zaigulako zer ikasi asko daukagula haiengandik. Alde ederrean bizi dira! Beraz, ahalik eta azkarren hasi gaitezen gure buruaz barre egiten eta garen moduan agertzen.

◆ **“Zaharra ez da izandakoa, luzaroan dena baizik”, dio kontuak, eta bada aintzat hartu beharrekoa. Zuk zeuk, baina, gaztea izanda, sekulako artea erakutsi duzu adinekoekin izandako elkarrizketetan.**

Ni oso gustura egoten naiz haiekin berriketan. Gaztea elkarrizketatzea askoz zailagoa egiten zait. Disfrutatu egiten dut adineko jendearekin solasean. Esango nuke etxean jaso dudana balore bat dela. Adinekoei errespetua izaten eta adinekoei entzuten irakatsi digute eta nik uste dut hori etxekoei eskertu behar diegan zerbaite dela.

♦ Etxekoak aipatu dituzu. Jarraitzen al dute saioa?

Jarraitzaile fidelak dauzkat etxean. Igandero igandero ikusten dute saioa. Harelere, saioak fikziotik ere badauka pixkat, eta gure aitak, adibidez, sufritu egiten zuen hasieran ni baserriko lanetan ikustean. "Hori baino hobeto ez al dakik behixak jeitzen? Astua eta mandua bereizten ez dakik?" Eta nik esaten nion 'aita, egixa esan asko ez dakit baserri kontuez, baiña hori baiño gehixago bai,' Kontua da batzutan plantak egitea tokatzen zaigula egoera umoretsuak sortu ahal izateko. Pagadi eta biok ez gara munduko listoenak, baina batzutan erakusten dugun bezain artaburuak ere ez. Jaja.

♦ Infernu handia den ez dakit, baina zerrurako bidez jardun zenuten Mendaron. Hori behintzat badu berezia herri horrek.

Guztiz berria izan zen niretzat Sendi Anaitasunaren kontua, eta Ramon Lazkanok oso ondo azaldu zigun. Elkarte bat da, eta elkartekideen artean ordaintzen dute beste elkartekide baten heriotzagastuak. Heriotzaz jardun ginen, baina umore handiz. Oso elkarrizketa polita irten zen, eta jende asko harrutuko da, Mendaron oso ezaguna izanda ere, Mendarotik kanpora hau guztiz berria delako. Ez dakit Euskal Herrian beste halakorik izango den.

♦ 'Eitb-koak datoz. Loiolaren iloba'. Mendaron osabak itzala egin dizu, Zuhaitz.

Jaja. Konturatuta nago, bai. Bakarren batek aitatu ere egin zidan. Gure osabak, bai, baina neuk ere Kilimojari estimu handia izan diot beti eta autopistan noalarik Ospas-Gain alde horretara begiratzen dudanean asko akordatzeko naiz garai hartaz. Edonola ere, esan behar dut neu ere

nolabait etxeko sentitu nintzela Mendaron. Oso pozik eta hunkituta joan nintzen etxera frontoiko saioa grabatzetik.

♦ Elkarrizketatzea tokatu zitzaizun bakarren bat lehenago ezagutzeko aukera ere izan omen zenuen?

Bai. Grabazioa baino astebete aurretik, Elgoibarren, zapatu gauean taberna batean nengoela, nahikoa berandu, mutil bat etorri zitzaidan euren amama elkarrizketatu behar nuela esanez. Eta handik gutxira han agertu zen bera, Teresin. 84 urterekin tabernan zebilen eta han igarri nion emakume hark kasta handia zeukala. Baina esaten dizut jende bikaina topatu genuela Mendaron. Esaterako, Manolo Landak ere sekulako jokoa eman zigun. Taberna ondoko pretilean topatu genuen, eta izugarria izan zen. Rafa Furnier izeneko mutil batekin ere egon ginen harategian. Ceutatik etorritako mutila da eta entzun egin behar da nola egiten duen euskaraz! Harrituta laga ninduen. Elkarrizketa asko egin genituen eta aukeraketan kanpoan gelditu zen, baina dudarik gabe, erakusteko modukoa zen harena.

♦ Saio honetan egoera denetan ikusi zaitugu. Zer eman dizu zuri?

Euskal Herria eta euskal herritar jator ugari ezagutzeko aukera. Pentsa, 80 bat herritar izan gara, eta programako batzabeste sei lagunetik gora elkarrikizketatu ditut. Atera kontuak zenbat istorio eta bizipen jasotzeko aukera izan dugun. Niretzat sekulako esperientzia izan da, egia esan, eta oso eskertua nago aukera hau eman didatenei. Hain sentitzen naiz gustura, batzuetan pentsatzen dudala neuretzat propio sortutako saioa dela. Sekulako erregalua izan da niretzat. Eta zer gehiago eman didan? Beharbada adineko askorekin izan dudana hartueman berezi hori eta ikusleek erakutsi didaten karinoa. Askok esan didate domeketan ezin direla oheratu saioa ikusi gabe. Barre asko egiten dutela gurekin. Elgoibarren, esaterako, bada alargundu berri den andre bat esaten didana, azken garaiak berarentzat oso alaiak izan ez badira ere, guk beti lortzen dugula berari irri bat ateratzea. Badago hori baino gauza handia-

gorik? Nekez, ezta? Jendeak agertzen digun karino hori itzela da. Euskaraz ez dakien jende askok ere esan digu ikusten gaituela eta iruditzen zait hor ere ekarpen bat egin dugula. Euskaraz ez dakien jende hori euskal mundura hurbiltzea gauza polita da.

♦ Karikaturizazio bat ere badago zuen pertsonailetan. Eroso sentitzen zara? Ze harreman daukazu zure sozioarekin?

Bai, bakoitzak bere rola du eta horrek jokoa ematen dio programari, biok berdinak bagina aspergariagoa litzatekeelako. Gure arteko harremana, berriz, oso berezia da, eta nik uste dut pantailaz bestekook ere igartzen duzuela. Programan ezagutu dugu elkar, lagunak gara, eta lanorduetatik kanpo ere sarri egoten gara elkarrekin. Eta laugarren denboraldia dugu! Horrez gain, kamara aurrean agertzeak, eta publikoaren aurrean lan egiteak sortzen du bere presioa eta hori ere zaindu behar izaten dugu. Ikusleek eskeintzen diguten maitasun hori eramaten ere jakin egin behar da, segituan despistatu zaitzakeelako. Bion artean saiatzen gara guzti hau ahalik eta ongien kudeatzen.

♦ Zenbaterik esan dizute etorri gure herri, mesedez?

Juergan irtetzen naizen aldiro entzuten dut hori. Elkarrizketatu behar genituzkeen herritarren zerrenda eginda etortzen zaizkizu, gainera, eta normala da, neuk ere osatuta daukaladako neure buruan San Migeli buruzko programa. Nola ez die, baina, ilusioa egingo! Euskal Herriko Itzulia gure etxe aurretik pasatzen zenean neu ere hantxe egoten nintzen telebistari begira, bi segunduz bada ere gure etxea pantailan ikusteko. Imajinatzen dut norbere herriari eskeinitako saio oso bat ikusteko aukera izateak ilusio berezia egin behar duela.

♦ Zein agertu beharko litzateke derrigor Aiaziari buruzko programan?

Asko dira, baina Mendaron agertu ez denez, Fernando Loiola gure osabak behintzat derrigor agertu beharko luke. Nork daki! Elgoibar herri handiegia da agian gure saiorako, baina egunen batean igual lantaldeak San Migelen grabatzeko oparia egingo dit! Ez legoke gaizki, ezta?

LANA.....**Eskaerak**

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ 662 041 526

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka.

☎ 632 952 947

Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Malgutasun osoa daukat ordutegian.

☎ 632 392 251

Pertsona helduak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo interna. Esperientzia eta erreferentziak daukat.

☎ 631 343 232

Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko, astebarruan arratsaldeetan eta asteburuetan egun osoz, gauak barne, nahi izanez gero.

☎ 652 718 719

Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Malgutasun osoa daukat.

☎ 697 961 386

Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak eta adinekoak zaintzeko.

☎ 631 049 059

Lan egin nahiko nuke. Malgutasun osoa daukat ordutegian.

☎ 632 949 742

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Asteazken zehar orduka. Asteburuetan ere bai.

☎ 612 493 242

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo interna.

☎ 632 729 261

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 602 047 812

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ospitalean, interno moduan eta orduka lan egiteko prest.

☎ 632 841 284

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko.

☎ 699 535 728 (Enrike)

Adinekoak zaindiko nituzke, etxe nahiz ospitalean. Formakuntza eta esperientzia handia dut.

☎ 602 161 496

Neska euskalduna eskaintzen da garbiketarako lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia daukat.

☎ 628 524 420

Neska euskalduna eskaintzen da adinekoak eta gaixoak zaintzeko.

☎ 617 571 210

Eskaintzak

Klase partikularrak emateko irakaslea behar dut, emakumezkoa. DBH 2. mailako irakasgai guztiak irakasteko.

☎ 616 379 009

Lehen mailako Batxiler teknologikoko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.

☎ 637 413 731

Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko.

☎ 678 396 522 (Maidar)

ETXEBIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 677 259 560

Etxea alokatzen dut San Roke kalean. Bi gela, bi komun, berogailu zentrala, komunetan lur radiala. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 660 042 159

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzko Alkartasuneko Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, jabeekideek denontzako kuota bera izendatu genuen komunitateko gastuak ordaintzeko. Orain jakin dut partaide-kuotaren arabera zehaztu daitekeela nork zenbat diru jarri gastu horiek ordaintzeko. Hau da, etxejabeek ez ginuekeela denok diru-kopuru bera ordaindu behar. Jakin nahiko nuke ia orain arteko ordainketa-modua aldatzeko modurik daukagun.

Faktore askoren arabera izango da hori. Ez da gauza bera urteetan kuota hori ordaintzen egon den etxejabe batek eskatzea edo komunitate horretara iritsi berri den etxejabe batek eskatzea. Kontuan hartu behar da, era berean, beste hainbat gauza: aurrez jabeekide guztien artean onartutako zerbait den etxejabe guztiek gogo onez betetzen egon diren hori, jabeekideen batzarrean ordainketa modu hori aldatzea aztertu den edo ez... Jabeekideen batzarrak ordainketa modu hori aldatzea erabakitzen badu, ez dago aldatzeko eragozpenik. Kuotak partaide kuotaren arabera ordaintzea proposatzen duena etxejabe berria bada eta Jabetza Erregistroan jaso gabe baldin badago orain arte ordaintzen egon diren kuota horrek zenbatekoa izan behar duen, etxejabe horrek lortu ahalko du partaide kuotaren arabera dagokiona ordaintzea, Jabetza Erregistroan jaso gabeko akordioek ez dutelako baliorik.

AHOLKUA: Etxejabeek ahoz adostutako akordioa baldin bada denek kopuru berean ordaintzea eta denek gogo onez bete badute orain artean, etxejabe horiek guztiak behartuta egongo dira adostutakoa betetzera, Jabetza Erregistroan jasota egon ez arren.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nahia**, polit hori, urtarrilaren 2an 8 urte bete zenituelako. Muxu potolo pila bat zure familia osoaren partez.



Zorionak, **Ihin-tza**, urtarrilaren 9an 6 urte beteko dituzulako. Elgoibar eta Errioxatik muxu potolo bat eta ondo pasa.



Zorionak, **txapeldun**, gaur 5 urte potolo egin dituzulako. Primeran pasatuko dugu! Muxu potolo bat familiakoen eta, bereziki, Olatzen partez.



Zorionak, **Lucia!** Ilgandean zure 3 urtekoak ospatuko ditugu! Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Alex eta Mikelen partez.



Zorionak, **Felisa eta Flora**, bihar, urtarrilak 6, 100 urte egingo dituzuelako. Lagunen partez, ondo-ondo ospatu.



Zorionak aitxitza **Adolfo** eta **Lur** astelehenean urteak beteko dituzuelako. Patxo bat etxekoan partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

SALENTO
BAR PIZZERIA

Pedro Migel Umuzuno, 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo



Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar

Urte berri on!



**BANAKETAREN
ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostegunera:
20:00etatik 23:00etara

Ostiral eta larunbatak:
20:00etatik 23:30era

Ilgandetan:
13:00etatik 16:00etara
20:00etatik 23:00etara

943 740 196

**Asteko menua 10,80€
Asteburuko menua 13€**

KIA NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1 - Eibar (Gipuzkoa) - www.naiacar.com

**KIA NAIA CAR Gabonetako zozketa
El Corte Ingles-ekin lankidetzan**



Elene Urigoitia izan zen irabazlea, 12 urteko durangarra. Argazkian ikusten dugu 200 euroko erosketa txekia jasotzen, Esteban Asensio El Corte Ingles-eko zuzendari ordearen eskutik.

5 BARIKAKUA

17:00 Jaiotza Biziduna. Elgoibarko Katekesiak antolatuta, San Bartolome parrokiaren atarian.

17:30 Errege Magoen desfilea, Mendaron, Arno Guraso Elkarteak antolatuta. Azpilgoetan hasiko da, eta herria zeharkatu ondoren, Ikastolako patioan jasoko dituzte umeen eskutitzak.

18:00 Errege Magoen desfilea. Elgoibarko Katekesiak antolatuta, Santa Klara auzotik iritsiko dira ekialdeko erregeak Kalegoen plazara.

6 ZAPATUA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza berezia. San Bartolome parrokiaren.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. Gasteiz (J. Fresco)
2. Puccini in concert (W. Hautvast)
3. Zorba el griego (M. Theodorakis)
4. Cuentos de los bosques de Viena (J. Strauss)
5. Pizzicato Polka (J. Strauss)
6. Rossini's birthday party (H. V. Lijnschoten)

11 EGUENA

18:30 Hitzaldia: Greziatik bizipenak. Iñaki Larrañaga Etxabek kontatuko ditu LM Village errefuxiatu kanpoan bizitakoak. Sutegeixan, Elgoibarko Gaztetxean.

Elgoibarko Izarrak aldi baterako Ludotekako hezitzaile lanpostua betetzeko lan-deialdia egiten du

ESKAITZEN DA:

- 30 orduko lan kontratua.
- Amatasun baimen baten ordezkapena.

ESKATZEN DA:

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Gizarte Zientzietako edo antzeko erdi edo goi-mailako titulazioa izatea.
- 3. hizkuntza eskakizuna, EGA edo titulu baliokideren bat.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmetua izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Haurtzaroaren eta haurren errealtatearen ezagutza.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatze gaitasuna izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- 4. hizkuntza eskakizuna izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko goi mailako unibertsitate titulazioa izatea.
- Espezializazio ikastaroak izatea.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA: urtarrilak 8, astelehena

Ubitarte 4, behea - 20870 Elgoibar
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00		
5 BARIKAKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKAKUA
Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gaez: 22:00-09:00
La Fuente
Sostoa kalea,10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)



'Suburbicon'

6 zapatua, 19:00 / 22:15
(VOS)
7 domeka, 19:00
8 astelehena, 21:30



'Hurra eta lapurra 2'

7, domeka, 16:30



Hilaria Larruskain Madariaga

2018ko urtarrilaren 3an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Yolanda Gabilondo Mendizabal

2017ko abenduaren 26an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Jose Luis Azpillaga



Begiraiozu argazkiko zuhaitz argidunari. Ez al dizu begirada altxarazten puntako izar argitsuraino? Eta, ondoren, atzeko elizak bere dorre luzeekin ez al dizu soa jasotzen gora eta gora zero beltzeraino? Harrigarria, begiradaren bidaia! Badirudi argazki honetan hori dutela eginkizun nagusi Gabonetako zuhaitzak eta eliza argituak: gure begirada altxatu eta zerura begira jarrarazi, gure errealitate arruntetik eta txikitasunetik misterio eta handitasunera aldatuz soa.

Baina non daude izarrak eta ilargia zero horretan? Ez dira ageri. Lainotuta ote dago zerua? Pena da. Baina oskarbi balego ere, hainbesteko argitasuna dago inguruan zein zuhaitzaren eta elizaren apaingarri, non ezinezkoa litzatekeen zeruko ezer ikustea. Zuhaitza eta eliza ederresten ditugu eta oso ederrak dira, baina haiek erakutsi nahi liguketen zero liluragarria gutxietsi. Esan ohi den moduan, hatzari so geratu gara, hark seinalatzten digun ilargi ederrari begiratu beharrean.

Ezinegonari ihes eginez bezala, gure begiradak behera egiten du ostera eta plazaraino jaisten da, bertan dauden pertsonengana. Bikoteak ikusten ditugu, familiak, lagunak elkarrekin, gurasoak ume txikiekin, patxadaz eta gozo, eta berotasuna sentitzen dugu.

Zuhaitzera hurbildu eta gurari bat lagako dut argitxo baten ondoan: estreinatu berri dugun urtean bila dezagula denok benetako edertasuna gure inguruan, eta goza dezagula lagunekin nahiz familiarekin batera.



Iñigo Lamelas

*“Estreinatu berri dugun urtean
bila dezagula denok
benetako edertasuna gure inguruan”*



Rosa Herrero Estarta

2017ko abenduaren 21ean hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Jose Mari Churruca Iriondo

2017 urtarrilaren 8an hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilaren 6an, 12:30ean Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Urtebete pasau da jun ziñanetik.
Gurekin zaude eta egongo zera beti.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5an hil zen, 57 urte zituela.


***Nahiz ta bizitzaren gurpilean
denbora oso azkar doan,
barrenak mugiarazitako
sentimenduak gogoan,
zortedun izan ginen zurekin
lagun handia ondoan,
ta zeinen nekez ahazten diren
bizitakoak alboan,
Mauxi, jarraitu gu denak zaintzen
Karakateren altzoan.***

Erre Arte koadrila





TITANIOZKO INPLANTEETAN PROMOZIOA



Urtarrilaren 30era arte

943 36 63 77
www.dentalaldaz.com



Lasarte - Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolomé, 22

Tolosa
San Frantzisko, 39